

2023KO KUDEAKETA TXOSTENA

2023an **sortutako etxebizitzetako eta merkataritzako hondakinen** kantitatea 144.271 tona izan zen. 2022aren aldean, % 0,59 gutxiago izan zen, hain zuzen, orduan 145.127 tona izan baitziren. Azken urteetan sortutako kantitateak egonkortzen ari direla ikusten da.

Gainerakoen frakzioa 62.863 tonakoa izateraino gutxitu zen. 2022an 70.742 tona izan ziren, eta, horrenbestez, urte batean % 11,14 murriztu zen kantitate hori, Edukiontzietarako Sarbidea Kontrolatzeko Sistema (ESKS) ezartzeagatik. Gai organikoen gaikako bilketa ezarri zenetik gainerakoen edo errefusaren frakzioaren kantitate txikiena bildu zen 2023an, 2020an bildu zen kantitatea baino % 24,62 gutxiago, hain zuzen.

81.409 tona **bildu dira bereiz**, sortutako hondakin guztien % 56,40. 2022an, 74.386 tona izan ziren, hondakin guztien % 51,25. Gaikako bilketan izan zen emendatze on hau ere 2021az geroztik Edukiontzietarako Sarbidea Kontrolatzeko Sistema ezarri izanaren ondorioa izan zen, bilketa bereiziaren balioa % 61,3koa izatera heldu baitzen. Horrenbestez, 7/2022 Legean (Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, ekonomia zirkular baterako) udal-hondakinak bereiz biltzearen gainean dauden helburuak lortu ziren (gutxienez, % 50 2035ean).

Ontzien, gai organikoen, arroparen, paper-kartoiaren eta tamaina handikoen gaikako bilketak izan ziren emendatze handienak erregistratu zituztenak: ontziak % 24,35, gai organikoak % 20,56, arropa % 9 eta paper-kartoia % 5,55. Gaikako bilketa bereiziren bat, ordea, jaitsi egin zen pitin bat, besteak beste, beirarena (-% 2).

Merkataritzakoa den bilketari dagokionez, Iruñeko Alde Zaharreko ostalaritza-establezimenduetan egiten diren kartoi- eta beira-bilketak, % 14,68 eta % 5,10 emendatu ziren hurrenez hurren 2022ko kantitateen aldean, eta bi kasuetan pandemiaren aurreko kopuruetara iritsi zen.

2023an **berreskuratutako hondakinen** kantitatea 66.125 tona izan zen, 2022an berreskuratu ziren 62.433 tonen aldean, % 5,9 gehiago, horrenbestez. 2023ko berreskuratze-ehunekoa sortutako hondakinen % 45,83 izan zen, 2022ko % 43,02aren aldean. Elektronikoki irekitzen diren edukiontziak erabiltzeagatik gai organikoen eta ontzien bilketak handitzearen ondoriozko emendatzeei egokitu zitzairen igoera hori % 90ean.

Hondakinak HHTZn ezabatzeari dagokionez, HHTZko zabortegira bideratutako kantitatea 95.638 tona izan zen, 2022an baino % 5,19 gutxiago (100.874 tona). HHTZ 1992an lanean hasi zenetik urte batean isuri den gutxienerako kantitatea izan zen, eta urte batean, 2006an, isuri zen kantitate maximoaren erdia baino gutxiago (% 55,65 gutxiago), orduan 215.585 tona bideratu baitziren zabortegira. Hala, murrizketa horrek ekarri zuen 2022an zabortegira 17.664 bidaia egitetik 2023an 16.624 bidaia egitera igarotzea. Hori, era berean, zabortegira joan ziren kamioien urteko kopuru txikiena izan zen, 2006an baino % 48 gutxiago. Gutxitze hori gertatu zen, batetik, etxebizitzetako eta merkataritzako gainerako frakzioa murriztu zelako, materialak berreskuratzea handitu zelako, eta, bestetik, industria-hondakinak murriztu zirelako, azken urteetan gertatzen ari den moduan. HHTZn zuzenean jasotako industria-hondakinak gutxitu egin ziren: 2020an 4.741 tona izan ziren, 2021ean, 4.099 tona, 2022an, 3.768 tona, eta 2023an, 3.013 tona.

Bio-hondakinak berreskuratzeari dagokionez, etxeko eta auzoko konpostajearen, gai organikoak edukiontzietan gaika biltzearen eta HUAko lohiak eta hondakin berdeak kudeatzearen lan egiten jarraitu zen.

Landa-eremuan, hondakin organikoak *in situ* edo bertan kudeatzeko politikak jarraipena izan zuen, eta, gainera, bere garaian hondakin organikoak biltzeko 5. edukiontzia jarri zen baina orain erabilera hori egokia ez izateaz gain ingurumen-

costu handia duela ulertu den landa-herrietara zabaldu zen. Hori dela-eta, herri horietan 0 kilometroko kudeaketa egitearen alde egin zen, hau da, bildu gabe kudeatzearen alde.

2023an, etxeko konpostajerako programan izena emandakoak 3.598 familia ziren, hondakinak beren kasa kudeatzeko kategorian (konposta pilan egitea, oiloei edo beste animalia batzuei ematea janari-hondarrak) erregistratuta dauden 790 familiez gain. Kopuru horri auzoko konpostajerako 42 guneak eta auzoko erabilerako konpost-ontzien 34 puntuak gehitu behar zaizkio: 740 familia dira beren hondakinak konpostaje deszentralizatuaren bidez kudeatzen dituztenak. Parte-hartzaile horiek guztiak aintzat hartuta, kalkulatzen da 2023an 3.158 tona hondakin organiko birziklatu zirela.

2023an, landa-eremuan hondakin berdeak metatu eta birrintzeko 59 gune zeuden. Hain zuzen, haietara eraman ziren hondakin berdeak, gero han bertan birrintzeko.

2023an, **gai organikoen bilketa berezian** 16.419 tona jaso ziren, aurreko urtean baino % 20,56 gehiago eta 2020an baino % 79,68 gehiago. Zehazki, bildutako gai organikoen kantitate osoa, sortutakoen aldean, % 32,6 izan zen.

Emendatze hori Edukiontzietarako Sarbidea Kontrolatzeko Sistema ezarrita dagoen tokietan gai organiko gehiago bildu zirelako gertatu zen (% 40) eta bai oraindik giltza mekanikoa duten edukiontzi itxiekin biltzen den tokietan, aurreko egoeraren aldean, pitin bat gehiago bildu zelako (% 19,3). Edonola ere, edukiontzi berri horiekin lortu den emendatzea gorabehera, oraindik ez dira lortu 2017-2027 aldirako Nafarroako Hondakin Planean ezarrita dauden helburuak: % 50 2020rako eta % 70 2027rako.

Iruñerriko Ingurumen Zentroaren proiektua dela-eta –hondakinak tratatzeko ekintza garrantzitsuena–, 2022ko abenduaren 21ean, Nafarroako Gobernuak Imarkoainen dagoen Garraioaren Hiriko Udalez gaindiko Plan Sektoriala eta Iruñerriko Ingurumen Zentroaren (IIZ) Udalez gaindiko Proiektu Sektoriala aldatzea onartu zuen. Gogoan izan behar da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak bi espediente horiek baliogabetu zituela 2022ko urtarrilean eta berriro izapidetu behar izan zirela urtean zehar. Horrek berekin ekarri zuen, gainera, ingurumen-zentro hori egiteko proiektua, obra eta abian jartzea egiteko kontratua bertan behera gelditzea, 2021eko abenduan esleituta zegoena, eta bai laguntza teknikoa emateko kontratua ere.

Nafarroako Gobernuak adierazitako onarpenen ondoren, kontratuen galarazpenak kendu ziren eta Iruñerriko Ingurumen Zentroaren Ingurumen Baimen Integratua eta obrak hasteko baimena onartzeko izapidetzeak berriro hasi ziren. Proiektuaren konplexutasuna eta gauzatzeko epeak murrizteko premia aintzat hartuta, proiektua hiru fasetan egitea aukeratu zen, hartara, izapidetzeetan eta obretan aurrera egin eta aldi berean proiektuaren xehetasunak garatzeko.

Hala, Nafarroako Gobernuak Ingurumeneko zuzendari nagusiak ebatzi zuen Iruñerriko Ingurumen Zentroaren Ingurumen Baimen Integratua ematea 2023ko uztailaren 21ean, eta uztailaren 31n Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiak Iruñerriko Ingurumen Zentroaren proiektuaren 1.1 fasea gauzatzeko obrak egiteko baimena eman zuen, nagusiki, lursailaren urbanizazioa, administrazio-eraikina eta bio-iragazkiak gauzatzean datzan baimena, hain zuzen.

Irailaren 4an, Iruñerriko Ingurumen Zentroaren 1.1 fasearen obrak hasi ziren Garraioaren Hirian eta 2023aren amaieran 1.2 faseko obretarako baimena jaso zain geunden. Zentroko nabeak altxatzeko fasea izango da.

Ekoizpena

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Sortutako hondakinen kantitate osoa (t)	151.570	150.751	149.093	151.167	145.128	144.271
Kilogramoak biztanleko eta urteko	411,20	403,61	394,20	399,93	383,95	380,24

Osaera

	2020		2021		2022		2023	
Papera-kartoia	25.183	% 16,89	24.871	% 16,50	21.915	% 15,10	21.961	% 14,94
Brikak	2.005	% 1,34	1.938	% 1,30	2.001	% 1,38	2.238	% 1,55
Plastikoa	13.172	% 8,84	12.580	% 8,30	13.052	% 8,99	13.471	% 9,34
Beira	13.416	% 9,0	14.361	% 9,50	14.356	% 9,89	14.067	% 9,75

Metalak	3.906	% 2,62	3.795	% 2,50	3.670	% 2,53	3.739	% 2,59
Ehunak	4.518	% 3,03	4.731	% 3,10	4.840	% 3,33	5.286	% 3,66
Tamaina handikoak	2.615	% 1,75	2.673	% 1,80	3.006	% 2,07	2.719	% 1,88
Zura	4.261	% 2,86	4.248	% 2,80	4.032	% 2,78	3.949	% 2,74
TEEHak	1.023	% 0,69	1.116	% 0,70	1.653	% 1,14	1.472	% 1,02
Pilak	38	% 0,03	41	% 0,00	35	% 0,02	68	% 0,05
Olioak	132	% 0,09	131	% 0,10	118	% 0,08	214	% 0,15
Beste produktu batzuk	11.978	% 8,03	12.262	% 8,40	12.521	% 7,94	10.363	% 7,18
Paper zikina, pixoihalak...	5.603	% 3,78	6.698	% 4,40	6.207	% 4,28	5.099	% 3,53
Etxebizitza+udaletako inauste-hondakinak	10.947	% 7,34	10.347	% 6,80	9.067	% 6,25	9.530	% 6,61
Gai organikoak	50.296	% 33,73	50.975	% 33,70	49.655	% 34,21	50.495	% 35,00
Guztira	149.093	% 100,00	151.167	% 100,00	145.128	% 100,00	144.271	% 100,00

Sortutako hondakinak, bilketa-motaren arabera (t)

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Gainerakoen frakziorako edukiontzian	87.476	85.510	83.400	83.483	70.742	62.863
Gai organikoetarako edukiontzian (5. edukiontzian)	8.676	9.367	9.138	9.521	13.619	16.419
Ontzietarako edukiontzian	8.710	9.197	9.886	9.852	11.681	14.525
Etxeko eta auzoko konpostajea	3.092	3.033	3.043	3.053	3.535	3.831
Material bakarreko bilketetan	36.305	36.389	36.113	37.114	37.037	38.187
Tamaina handikoen bilketan eta garbiguneetan	7.312	7.255	7.513	8.143	8.513	8.446


Hiri-hondakinen berreskuratze osoaren bilakaera

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Hiri-hondakin berreskuragarriak (t) analisisien arabera	132.435	131.677	128.358	129.270	125.173	125.768
Berreskuratutako hiri-hondakinak (t)	57.736	58.968	58.934	61.237	62.433	66.125
Hiri-hondakinen berreskuratze osoaren indizea	% 43,60	% 44,78	% 45,91	% 47,37	% 9,88	% 52,58

Bio-hondakinen berreskuratze-indizea (t) (gai organikoak, inauste-hondakinak eta konpostajea)

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Bio-hondakinak hondakinetan (t)	65.030	63.274	61.242	61.322	59.165	60.024
Berreskuratutako bio-hondakinak	20.915	20.537	21.116	20.888	23.014	25.995
Bio-hondakinen berreskuratze-indizea	% 32,2	% 32,5	% 34,5	% 34,1	% 38,90	% 43,31

Bio-hondakinen berreskuratze-indizea



Berreskuratzea, produktuen arabera (t)

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Tamaina handikoak	824	931	864	1.070	1.064	1.012
Berreskuratutako papera-kartoia, guztira	17.576	18.036	17.580	18.155	18.032	16.409
Beira, guztira	9.514	9.940	9.295	10.317	10.487	10.354
Metalak, guztira	976	1.038	1.320	1.343	1.472	1.436
Plastikoak, guztira	3.242	3.555	3.833	3.834	4.297	5.050
Brikak, guztira	649	665	753	727	744	848
Ehunak	884	927	930	1.139	1.350	1.411
TEEHak	978	1.060	1.023	1.116	1.117	1.096
Zura	2.035	2.128	2.052	2.475	2.442	2.357
Pilak	30	34	38	41	35	43
Oltoa	113	117	132	130	118	115
Etxebizitzetako inaste-hondakinak	6.321	5.997	6.684	6.198	4.577	4.790
Udaletako inaste-hondakinak	2.989	2.543	2.643	2.526	2.416	2.386
Gai organikoak	8.513	8.964	8.745	9.112	12.564	14.988
Etxeko eta auzoko konpostajea	3.092	3.033	3.043	3.053	3.535	3.831
Berreskuratutako produktuak, guztira	57.736	58.968	58.934	61.237	64.249	66.125
Berreskuratutako kilogramoak biztanleko eta urteko	156,63	157,87	155,82	162,01	169,98	174
Ontzien berreskuratze osoaren indizea	% 52,90	% 53,8	% 52,7	% 55,6	% 60,06	% 64,5

Paperaren eta kartoiaren berreskuratze osoaren indizearen bilakaera

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Hiri-hondakinetan dagoen papera eta kartoia (t)	24.995	25.554	25.173	24.871	22.439	21.560
Berreskuratutako papera eta kartoia (t)	18.222	18.036	17.580	18.155	16.294	16.409
Paperaren eta kartoiaren berreskuratze osoaren indizea	% 70,3	% 70,6	% 69,8	% 73,0	% 72,61	% 76,11

Zabortegira desbideratzea

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Zabortegira bideratutakoaren % (bildutako zabor guztien %, zabortegira ez doazenak)	53,32	54,24	54,49	54,76	57,37	59,21

